

## **GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALA ERATZEKO 2019KO EKAINAREN**

### **15EKO EZOHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

#### **BERTARATUTAKOAK**

Juan Felix Naberan Ozamiz (EAJ-PNV)  
Edurne Murga Santisteban (EAJ-PNV)  
Patrik Saitua Betanzos (EAJ-PNV)  
Carlos Mendiola Ugalde (EAJ-PNV)  
Leire Naberan Etxabe (EAJ-PNV)  
Jasone Basterretxea Oiarzabal (EH BILDU)  
Aitziber Ribas Bilbao (EH BILDU)

#### **IDAZKARIA:**

Amaia Abanzabalegui Aranguren

Larunbatean, bi mila eta hemeretziko ekainaren hamabostean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, hamahiruetan, Hauteskundeen Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. eta 196. artikuluetan eta tokiko erakundeen antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoaren erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoa betez, eta Gautegiz Arteagako udal berria eratzeko, 2019ko maiatzaren 26ko udal hauteskundeen emaitzak ikusita, tokiko erakundeetako kide guztiak berritzeko, goian zerrendatu diren zinegotzi hautetsiak bildu dira, ekitaldiaren fede eman duen idazkariarekin batera.

Goiko aldean zehazten diren zinegotziek dira ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denaren arabera udal berriaren eraketa saio publikoa osatuko duten zinegotzi hautetsi guztiak.

#### **MAHAIAREN OSAERA:**

Saioa hasitzat jo ondoren, Adineko Mahaia eratu da, eta batzarrean bildu diren zinegotzi hautetsien artean adinez nagusienak eta gazteenak osatu dute; horiekin batera, udalbatzako idazkaria denak Adineko Mahaiaren idazkari lanak ere egin ditu, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrenbestez, Adineko Mahaia osatu dute Juan Felix Naberan Ozamiz jaunak, bertaratutako zinegotzien artean nagusienak, Leire Naberan Etxabe andreak, zinegotzi gazteenak, presidente gisa, eta Amaia Abanzabalegui Aranguren andreak, Udalbatzako idazkari gisa.

Jarraian, idazkariak, presidentearen aginduz, udal berrien eraketari aplikagarriak zaizkion

xedapenak irakurri ditu, besteak beste, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195. artikuluan jasotakoak.

Idazkariak zinegotzi hautetsi guztiak izendatu ditu, egiaztagutunekin eta nortasun-agiriekin agertu daitezzen. Adineko Mahaiko kideek aurkezturiko egiaztagutunak egiaztatu dituzte.

Beranduago, toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 36.2. artikuluan zehazten den dokumentazioa eta informazioa prest eta eguneratuta dagoela jakinarazi du idazkariak: “Idazkari eta kontuhartzaileek beharrezko neurriak hartuko dituzte tokiko udalbatza berriak eratzen diren egunean kontaketa bat gauzatu dadin eta udalbatzaren dirutako izakinak edo balio propioak (udal-kutxan edo banku-erakundeetan jarritakoak) daudela egiaztatzen duten agiriak eta udalbatzaren eta horren erakunde autonomoen ondarearen inbentarioari buruzko dokumentazioa prestatuta eta eguneratuta egon daitezzen.”

Jarraian, zinegotzi hautetsi guztiek Tokiko Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan zehazturiko aitortpenak egin dituztela egiaztatu da eta bateraezintasun arrazoiren bat sortu zaien azaltzeko gonbita egin die Idazkariak hautatu berri diren zinegotziei, baina horiek ez dute arrazoirik adierazi.

Hauteskundeen Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.4 artikuluko eta toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 37.4 artikuluko eskakizuna betetzen dela kontuan hartuta, eta saio honetan hautatu diren zinegotzi guztiak bertaratu direla ikusita, Hauteskundeen Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 108.8 artikuluan aurreikusitako zin egiteko edo hitzemateko legezko baldintza bete da.

#### ZIN EGITEKO EDO HITZEMATEKO EKITALDIA

Udaleko idazkariak Hauteskundeen Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 108.8 artikulua (zinegotzi hautetsien kargu-hartzeari dagokiona) irakurri ostean, zinegotzi hautetsi guztiak izendatu dira zin egin edo hitzeman dezaten.

Zin egitea edo hitzematea apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan aurreikusten den formula erabiliz gauzatzen da, eskualdeko hauteskunde-batzordearen ziurtagirietan azaltzen den ordenaren arabera.

Zinegotzi hautetsiek honela hartu dute kargua:

Juan Felix Naberan Ozamiz (EAJ-PNV): Bai, legeak hala behartuta.

Eduarne Murga Santisteban (EAJ-PNV): Bai, legeak hala behartuta.

Patrik Saitua Betanzos (EAJ-PNV): Bai, legeak hala behartuta.

Carlos Mendiola Ugalde (EAJ-PNV): Bai, legeak hala behartuta.

Leire Naberan Etxabe (EAJ-PNV): Bai, legeak hala behartuta.

Jasone Basterretxea Oiarzabal (EH BILDU): Bai, zin dagit, legeak hala behartuta.

Aitziber Ribas Bilbao (EH BILDU): Bai, zin dagit, legeak hala behartuta.

Hauteskundeen Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan ezarritakoa beteta, 13:10ean, mahaiko presidentek erabakia hartu du Gauegiz Artegako Udala 2019ko maiatzaren 26an egin ziren udal hauteskundeen ostean.

### ALKATEAREN HAUTATZEA

Jarraian, idazkariak alkatearen hautatzearen inguruko arauak irakurri ditu, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 196. artikuluan jasotzen direnak.

#### a) Alkatetzarako hautagaien jakinarazpena

Beren zerrenden buru diren zinegotziak, alkate kargua hartzeko hautagaiak, honako hauek dira:

◆ Juan Felix Naberan Ozamiz ..... E.A.J-P.N.V.

◆ Jasone Basterretxea Oiarzabal ..... EH Bildu.

Adineko Mahaiko idazkariak zerrenden buru diren zinegotziei galdetu die ea alkatetzarako beren hautagaitza mantendu edo baztertzen duten eta bi hautagaiak beren hautagaitza mantentzen dutela adierazi dute.

Jarraian, Udaleko alkate izateko hautagaiak izendatu dira.

#### b) Bozkatzeko sistemaren aukeraketa

Hautagaiak izendatu ostean, idazkariak alkatea aukeratzeko bozkatzeko sistema aukeratzera gonbidatu ditu zinegotzi hautetsiak (toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 101. artikulua).

Izenez (publikoki) bozkatzeko sistema aukeratu da eta, segidan, zinegotziak bozketarekin hasi dira:

Juan Felix Naberan Ozamiz (EAJ-PNV): Juan Felix Naberan Ozamizi ematen diot nire botoa.

Edurne Murga Santisteban (EAJ-PNV): Juan Felix Naberan Ozamizi ematen diot nire botoa.

Patrik Saitua Betanzos (EAJ-PNV): Juan Felix Naberan Ozamizi ematen diot nire botoa.

Carlos Mendiola Ugalde (EAJ-PNV): Juan Felix Naberan Ozamizi ematen diot nire botoa.

Leire Naberan Etxabe (EAJ-PNV): Juan Felix Naberan Ozamizi ematen diot nire botoa.

Jasone Basterretxea Oiarzabal (EH BILDU): Jasone Basterretxea Oiarzabali ematen diot nire

botoa.

Aitziber Ribas Bilbao (EH BILDU): Jasone Basterretxea Oiarzabali ematen diot nire botoa.

Emaitza hau izan da:

- ◆ Juan Felix Naberan Ozamiz ..... 5 boto.
- ◆ Jasone Basterretxea Oiarzabal..... 2 boto.

Ondorioz, guztira, 7 zinegotzi direnez eta legezko gehiengo absolutua 4 botorekin lortzen denez, Juan Felix Naberan Ozamiz EAJ-PNV alderdiko zerrendaburua hautatu dute eta, ondorioz, alkate izendatu dute.

Kargua onartu eta, legeak hala behartuta, karguaren betebeharrak leial beteko dituela eta Konstituzioa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua oinarritzko arau gisa bete eta betearaziko dituela zin egin ostean, Juan Felix Naberan Ozamizek presidente kargua hartu du.

Jarraian, Juan Felix Naberan Ozamiz alkate-presidenteak hartu du hitza eta honako hau adierazi du:

“Aurten, Euskal Herriko udaletan lehenengo zinegotzi nazionalistak hautatuak izan zireneko 120. urteurrena ospatzen dugu.

1899ko maiatzaren 14an, alderdi abertzale batek udal hauteskunde batzuetan hartu zuen parte lehen aldiz, Eusko Alderdi Jeltzaleak, eta zenbait zinegotzi hautatu ziren Bilbon, Bermeon, Mundakan eta Gauegiz Arteagan. Horren erreferentzia egiten duten orduko egunkari eta autoreek, esate baterako, Jean Claude Larrondek “El nacionalismo vasco” izeneko liburuan; hala ere, ez dira aipatzen garai hartako zinegotzi nazionalisten izenak.

Aurten, bestalde, frankismoaren gau luze eta ilunaren osteko lehenengo hauteskunde demokratikoen 40. urteurrena ospatzen dugu. Julián Muniategi, Zorion Naberan, Jesús Bernaola, Gotzon Basterretxea, Maria Dolores Muniategi, Jon Akordarementeria eta Jesus Ormaetxea demokratikoki hautatuak izan ziren 1979ko apirilaren 3an eta gaur Maria Dolores dago gurekin; eskerrik asko gaur hemen gurekin egoteagatik.

Gaur, etapa honetako hamaikagarren agintaldia hasiko dugu. Espero dut emaritsua eta baketsua izango dela.

Ilusioa, ilusioarekin lan egiteko talde bat, hori da nik gaur hemen ikusten dudana.

Beste bizilagunen zerbitzura dauden bizilagunez osaturiko lantalde bat. Gertutik, segurtasunarekin eta kalitatearekin lan egiteko prest.

Ez gara aldatu eta ez gara aldatuko. Zuzentasuna, gardentasuna eta zintzotasunak osatzen dute gure konpromisoa; gaur egungoa, aurrekoa eta betikoa.

Egia eta konpromisoa dira gure ereduaren ardatzak.

Ilusioz betetzen gaituen erronka bat, betiere, Gaategiz Arteagako garapenean aurrerapausoak ematen Busturialdeko beste herriekin batera.

Konfiantza eskatu dugu eta herriak bere konfiantza eman digu; eskerrak eman behar dizkiegu guregan konfiantza jarri dutenei; konfiantza hori zaindu eta babestu behar dugu, altxor bat baita guretzat, hazten jarraitu dezan.

Guretzako, politikak erabakiak hartzean datza, eta udal politikak guztion artean gure udalerriarekin loturiko erabakiak hartzean datza, betiere, pertsonak ardatz hartuta.

Gaur, honelako ezohiko saio batean, agintaldi honetan zehar zinegotzi izan diren Rosa Mari Aberasturi, Javier López de Alda, Julián Mari Uriarte eta Edorta Ibarrari “Agur” esateko eta “Eskerrik asko” esateko eta Patrik Saitua eta Leire Naberani ongietorria emateko momentua da. Gainerakoek, Karlos, Edurne, Aitziber, Jasone eta ni neuk, ibilbidearekin jarraituko dugu.

Eskerrik asko guztioi egin duzuen lanarengatik. Eskerrik asko beti prest egoteagatik, zuen denbora eta ezagutzak gure udalera ekartzeagatik, hain eskuzabalak izateagatik.

José Miguel de Barandiaranek esan zuen bezala “Izan zirelako gara; garelako izango dira”, eta hori da gure ilusioaren arrazoia. Udal erantzukizunetan gure aurretik egon zirenen lana zaintzea, beren lorpenak indartu eta kontserbatzea, eta hobetzea; beraiek egin zuten bezala, eta gure ondorengoentzako egingo dugun bezala.

Hori da gure erronka eta zuek bezalako pertsoneri esker da posible.

Kate-mailak ez dira apurtu, gure esku dago horiek mantentzea, eta horiek indartzen eta hobetzen jarraituko dugu gure esku dagoen bitartean, guztion artean, elkartasunean”.

Jarraian, Juan Felix Naberan Ozamiz alkate-presidenteak hitza eman diren udalbatzan ordezkariak duten indar desberdinen ordezkariari, baina denek baztertu dute gonbidapena.

Gero, Juan Felix Naberan Ozamiz alkate-presidenteak amaitutzat eman du bilera 13:20an, eta nik, idazkaria naizen heinean, horren fede ematen dut.

O.E.

ALKATEA

IDAZKARIA

Sin.: Juan Felix Naberan Ozamiz

Sin.: Amaia Abanzabalegui Aranguren